

Gure zapatilen salmentarako nahitaezkoa izango da webgune bat izatea, kanpoko jendeak gure zapatilak ikusi eta erosi ahal izateko. Baina webgunetaz gain, nahitaezkoa izango da denda fisiko bat edukitzea inguruko herrietako bezeroek zapatilak dendan probatu ahal izateko. Biltegi bat ere beharko dugu gure materialak eta iristen joaten diren eskaerak bertan gordetzeko, bidaltzen ez diren bitartean. Garraioaz hitz egiten, kamioiak beharko ditugu produktuak erosi dituztenen pertsonen etxeetara iritsi ahal izateko. Komunikazio kanal batzuk izango ditugu, sare sozialak 'SiiKzapatilak' izenarekin eta lehen egunetan kaletik poster batzuk pegatuko ditugu eroslea gure dendara etorri ahal izateko. Banaketa kanalak ere izango ditugu, eskaerak dendatik urruti egin badira edo Euskal Herritik kanpo badaude entregatzeko pertsonak izango ditugu erosleen etxeetara iritsi ahal izateko.